

AUZO-KONPOSTAJEA SUSTATZEAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Eguneroko bizimoduan mota guztietako hondakinak sortzen ditugu. Ingurumenaren ikuspegitik hondakin hauen kudeaketa da, hain zuzen, arazo eta kezka iturri handienetako bat.

Sortzen ditugun hondakinen artean hondakin organikoak daude, besteak beste, eta hauei ere irtenbidea eman behar zaie. Arazo ximpleei irtenbidea emateko irtenbide ximpleak daudenean, ordea, ez da teknologia eta metodo konplikatu eta garestietara jo behar, ez da inteligentea. Beste modu batera esanda, argia dagoen lekuan ez da bonbilarik behar.

Eta hondakin organikoaren kasuan badugu argia, ez dugu bonbilarik behar. Munduak mundu denetik, naturak esaten digu debalde nola egin. Naturan, basoetan orbelarekin gertatzen den modua, prozesuan animalia txiki eta mikroorganismo askoren lan eta parte hartzearekin, materia organikoa deskonposatu egiten da ongari natural bilakatuz. Horixe da hain zuzen konpostatzea: zizare, onddo eta bestelako mikroorganismo mordoarekin tratu egitea. Negozio egitea: jana lanaren eta ongariaren truke.

Hondakinen udal kudeakearen ikuspegitik, auzo-konpostajea sustatzearen aldeko politika egitea inteligentziaren aldeko politika egitea da. Esan nahi da: argia dagoenean bonbila ez erabiltzearena. Gero eta pertsona eta familia gehiagok auzo-konpostean parte hartu, orduan eta organiko gutxiago bidali beharko da beste tratamendu garestiagotara eta, ekologiaren ikuspegitik, eskasagoetara.


Aurreko guztia kontutan hartuta eta hondakin organikoak birziklatzearen garrantziaz jabetuta, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak ondoko adierazpen instituzionala adosten du:

1.- Auzo-konposta egiteko guneak ugaritzea eta zabaltzea Lasarte-Oriako auzo guztietara.

2.- Indarrean dagoen tarifa finkoa baztertu eta sortutako hondakin kopuruaren araberako tasa aldakor eta mailakatua landu eta indarrean jartzea. Tarifa progresibo hori ezarri bitartean, auzo-konposta egin eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua agertzen duten pertsona eta familiei hobariak aplikatzea.

Lasarte-Orian, 2016ko apirilaren 8an

EH Bildu Udal Taldearen izenean

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.